

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak Nafarroako artxibo eta museoetarako jasotako objektu baliotsuen dohaintzak eskertu ditu

Goicoechea lehendakariordeak eta Morrás kontseilariak omenaldi bat egin diete azken urtean egindako dohaintzen sustatzaileei

Lunes, 01 de diciembre de 2014

Foru Gobernuak omenaldi bat egin die azken urtean objektu baliotsuen dohaintzak egindako [pertsonei](#), [2014ko Nafarroaren Eguneko](#) ospakizunaren barnean aurreikusitako ekintzen barnean. Objektu horiek artxibo eta museo publikoetarako izango dira, Julio Caro Baroja museo etnologikorako, Karlismoaren museorako, Nafarroako Liburutegirako eta Nafarroako Errege Artxibo Orokorrerako, adibidez.



Goicoechea lehendakariordea, Morrás kontseilaria eta Zabalegui zuzendari nagusia omendutako dohaintza-emaleekin.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan egin da eta honako hauek izan dira bertan: lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea; Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrás eta Kulturako zuzendari nagusi Ana Zabalegui.

Dohaintzan emandako balio historiko edo artistikoa duten objektuen artean nabarmendu behar dira: Santa M^a del Villar-ko markesak emandako argazki-artxibo eta artxibo dokumentala; 1785ean inprimatutako kaparetasuneko nobletasun-agiri bat; XVIII. eta XIX. mendeetako antzinako liburuen bilduma bat; Vianako García de Jalónen artxibo familiarra; 1873an, Mañeruko Santa Barbarako Ekintzako Remington-eskopetarako balak; edo Iruñeko Alfonso Carlos ospitaleko domina bat.

Beren "eskuzabaltasuna" aitortuz

Ekitaldian, Goicoechea lehendakariordeak pertsona horiei diploma bana banatu die; horrenbestez, Nafarroako Gobernuak "beren eskuzabaltasuna eta filantropia itzuli nahi die" haien ondare partikular edo familiarretik balio historiko edo artistikoko objektuak eskuzabaltasunez dohaintzan emateagatik.

Lourdes Goicoecheak bere agerraldian onartu duenez, dohaintza horien jatorrian ageri den "eskuzabaltasuna eta partekatze gogo" "guztiok elkarrekin Nafarroaren Egun hau ospatzeko garaian sustatu beharreko bertute eta balioak dira".

"Bizi ditugun garai zail hauetan", jarraitu du esaten lehendakariordeak, "partekatze, lankidetzan aritzeko eta laguntzeko joerak dituzten jokabideak inoiz baino gehiago eskertu eta aitortu behar dira".

Bigarren aldia

Gogora ekarri behar da, Nafarroako Gobernuak pertsonak eta erakundeak objektu baliotsuak eskuzabaltasunez ematea aitortzen duen bigarren aldia dela, Foru Komunitateko artxibo eta museo publikoetarako diren objektuak, hain zuzen. Era honetako lehen omenaldia iaz egin zen, 2013ko Nafarroaren Egunaren ospakizunaren barnean.

Ekitaldian musika entzuteko aukera ere izan da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasleen eskutik. Honako ikasle hauek izan dira: Ane Rodríguez de la Cal, Corinna Jöbstl, Lorea Gurruchaga eta Juan Mari Ruiz, eta laukote horrek Nafarroako Ereserkia, P, Brant-en Andante piezak eta Lully-ren zeremonia turkiarraz Martxa interpretatu ditu.



Goicoechea lehendakariordea, bere agerraldian.